Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko abuztuan

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 866 eskaintza erregistratu dira 2024ko abuztuan, uztailean baino 267 gutxiago eta 2023ko abuztuan baino 159 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko abuztuan 121 eskaintza erregistratu dira Araban, 399 Gipuzkoan eta 346 Bizkaian. Eskaintzen % 14 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 46,1 Gipuzkoan eta % 40 Bizkaian.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 43,2 egin dute behera (92 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan, % 12,1 murriztu dira (55 eskaintza gutxiago); eta azkenik, Bizkaian, eskaintzek % 25,8a egin dute behera, 120 eskaintza gutxiago).

Iazko abuztuaren, aldean, igo egin dira eskaintzak hiru lurralde historikoetan. Ehunekotan zein balio absolutuetan, Gipuzkoan igo dira gehien, % 30,8 (94 eskaintza gehiago); Araban 9 eskaintza gehiago erregistratu dira (+%8ko igoera); eta, azkenik, Bizkaian 3 eskaintza gehiago izan dira (+%19,3).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn zientzia-teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien: 199 hain zuzen ere, eskaintza guztien % 23. Ondoren, zerbitzuen profila dago, 180 eskaintzarekin eta % 20,8ko pisuarekin. Laguntza-teknikarien, kualifikatu gabekoen eta industriako okupazio-profilek ere % 10etik gorako pisu esanguratsua dute, erregistratutako eskaintza-bolumenaren ehunekoak % 16,5, % 14 eta % 10,5 baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 7 eta 14 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Joan den hilaren aldean, profil guztietako eskaintzek egin dute behera, zuzendarien profilak izan ezik, 8 eskaintzatan igo baitira (% 133,3ko hazkundea). Balio absolutuetan gehien jaitsi direnak teknikari zientifikoen eskaintzak dira (-85 eskaintza eta % 29,9ko jaitsiera); balio erlatiboetan, beherakada handiena operadoreen eskaintzetan gertatu da (% 42ko jaitsiera, -42 eskaintza).

Urte arteko saldoari dagokionez, eskaintza guztiak igo dira, industriakoak izan ezik, horiek 2 gutxiago izan baitira (-%2,2ko beherakada). Gehien hazi direnak, balio absolutuetan, teknikari zientifikoen eskaintzak dira, 53 eskaintza gehiagorekin eta % 36,3ko igoerarekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena zuzendarien eskaintzetan gertatu da, % 250eko hazkundearekin (4 eskaintzatik 14ra igaro dira).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 47,9 mugagabeak dira, % 50,4 aldi baterakoak eta gainerako % 1,7 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta; gainera, hilabete honetan 6 puntu hazi da iazko abuztuarekin alderatuta, eta 7 puntu aurtengo uztailarekin alderatuta. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joerari jarraitzen diote. Eskaintza mugagabeak 415 izan dira, aurreko hilean baino 49 gutxiago (-% 10,6). Aldi baterako eskaintzak 226tan murriztu dira; guztira 436 izan dira, balio erlatiboetan beherakada % 34,4koa izan da. Azkenik, merkataritza-izaerako 15 eskaintza izan dira abuztuan, uztailean baino 11 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 119 gehitu dira (% 40,2ko igoera); aldi baterako kontratuen eskaintzak gutxiago igo dira, % 6,3ko igoerarekin eta 26 eskaintza gehiagorekin. Azkenik, 14 merkataritza-eskaintza gehiago erregistratu dira urteko erreferentzian, eta eskaintza bakarra izatetik 15 izatera igaro dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2024ko uztailean erregistratutako eskaintzen % 70,7k 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; 612 eskaintza guztira. Erregistratutako eskaintzen % 15,2k, 132 guztira, 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 2,4ko pisuarekin (21 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 6 eskaintza eta % 0,7ko pisuarekin.



Hileko bilakaerari dagokionez, 0-6 hilabeteko tartean jaitsi dira eskaintzak soilik; % 34ko murrizketa, 315 eskaintza gutxiagorekin. Aitzitik, igoerarik handiena, balio absolutuetan, 6-12 hilabete behar dituzten eskaintzetan eman da, 29 eskaintza gehiagorekin (+%28,2); balio erlatiboetan, igoerarik handiena 5 urte baino gehiago behar dituzten eskaintzetan izan da, 4 eskaintza gehiagorekin eta % 200eko igoerarekin.

Urteko bilakaerari dagokionez, gora egin dute eskaintzek esperientzia-tarte guztietan. Guztizko balioetan, 0 eta 6 hilabete bitartean eskatutako esperientzia-tartearen igoera nabarmentzen da, 67 eskaintza igo baitira (+%12,3); balio erlatiboetan, berriz, 1 eta 3 urte bitartean behar dituzten eskaintzen gorakada nabarmentzen da, % 66,7 hazi baitira (+38 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko abuztuan

Abuztu honetan, erregistratutako lan-eskaintzek 5,5 hilabeteko esperientzia behar dute, batez beste.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten eskaintzak erregistratzeko orduan egin beharreko lanaldia, eskaintzen % 16,9k bakarrik zehazten baitute lanaldia, (866 eskaintzatik 146 bakarrik). 146 eskaintza horietatik 130 lanaldi osokoak dira, eta gainerako 16ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 8tan jaitsi dira uztailaren aldean, hau da, % 5,8ko beherakada. Lanaldi partzialeko 7 eskaintza gutxiago izan dira abuztuan, eta jaitsiera erlatiboa % 30,4koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak 57 gehiago izan dira (% 78,1eko gorakada). Lanaldi partzialeko eskaintza 1 gutxiago izan dira 2024ko abuztuan, eta beherakada erlatiboa % 5,9koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 12 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 7 gutxiago eta aurreko urtean baino 10 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 85,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 866 eskaintzetatik 127k soilik zehaztu dute.

123 eskaintza horietatik 52k unibertsitate ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila minimo hori da gehien eskatu dena; ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak behar dituzten eskaintzak datoz, 39 eskaintza erregistratu baitira abuztuan. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilerreko profilak, 26 eta 10 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, behera egin dute eskaintzek ikasketa-profil guztietan. Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, unibertsitateko eskaintzetan gertatu da, 41 eskaintza gutxiagorekin eta % 44,4ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena gutxienez Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituzten eskaintzetan gertatu da, % 45,1 jaitsi baitira (-32 eskaintza).

2023ko abuztuarekin alderatuta, jaitsi egin dira batxilergoko ikasketak (-1 eskaintza, % 9,1eko jaitsiera) eta LHko ikasketak (-% 4 eta -% 9,3) behar dituzten eskaintzak. Aitzitik, unibertsitate-ikasketak behar dituztenak hazi dira gehien bai maila absolutu zein erlatiboan (21 eskaintza gehiago, % 67,7ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera manufaktura industria da, % 14,8ko pisuarekin (128 eskaintza). Jarraian, merkataritzako eskaintzak datoz, 109 eskaintzarekin eta hileko eskaintza guztien % 12,6.

Aurreko hilabetearen aldean, jarduera gehienetan jaitsi dira eskaintzak. Nabarmentzekoa da administrazio publikoko (-64 eskaintza, -% 65,3) eta osasun-jardueretako (-43 eskaintza, -% 29,7ko murrizketa) eskaintzen beherakada. Aitzitik, gehien hazi diren eskaintzak finantza-jarduerenak dira, 9 eskaintza gehiagorekin (+%112,5).

Urte arteko saldoari dagokionez, industriaren (+54 eskaintza, +%73) eta jarduera profesional eta zientifikoen (+36, % 66,7ko igoera) eskaintzak hazi egin dira. Beste aldean, jaitsierarik handiena administrazio publikoan izan da, 12 eskaintza gutxiago eta % 26,1eko murrizketarekin.